



ttipi-ttapa

TOPIKOH

www.ttipi.net



2013ko abuztuaren 8a | XXXIII. urtea | 596. zenbakia

**Herrietako
Bestak/Festak**

ARANTZA → 9
Arantza Rock jaialdia
abuztuaren 24an

GOIZUETA → 14
Asier Olaizola atzelari ariko
da festetako partidari

ZUGARRAMURDI → 18
Lezeko zikiro jatean 2.000
lagun espero dituzte

AMAIUR → 26
Erramun Martikorena
eta Mikel Markez kantuz

BERA | San Migel Zubia 1813-2013

Herritarrek sufritu zutena jakiteko eta jakinarazteko garaia

Duela 200 urte
Napoleonen eta aliatuen armaden arteko gudek
ondorio latzak utzi zituzten inguru honetan ere.
Orduko triskantzak oroitzeko, ikuskizuna
prestatu dute Beran abuztuaren 31rako.
Xehetasun historikoak biltzen dituen
argitalpena ere argitaratu dute
San Migel Zubiko Lagunek.

ERREPORTAJEA → 3-5





ARANTZAKO UDALAK
besta onak opa dizkizue aranztar eta bisitari guztiei



ONGI PASA BESTAKI!

GIZARTEA → 200. URTEURRENA

San Migel zubia: 200 urtez historian atzera egiteko lokarria

1813ko gertakariak herritarrengan utzitako ondorioak azpimarratu nahi dituzte urteurreneko ekitaldietan

1813ko irailaren 1a zen. Ingeles eta frantziar soldaduen arteko gudaleku bihurtu zen Bera eta Lesaka arteko San Migel zubia. Historia liburuetan aunitzetan aipatu izan den pasadizoa da. Itzalean gelditu izan dira ordea, Bortzirietan guda hark utzi zituen ondorioak. Isilean hondamena, gosea eta gerra ondorenak eragindako hildakoak. 200. urteurrenaren harira, San Migel Zubiko Lagunek begirada orduko herritarrengan pausatu eta hitzaldiak, antzerkia... prestatu dituzte. Auzolanean zubi zaharra ere berritu dute: historian atzera egiteko zubia izaten segi dezan etorkizunean.

Eneritz IRAOLA

Ez zen euskaldunen gerra, baina bere ondorioak jasan behar izan zituzten Bortzirierako herritarrek «borroka baten antzetzoki izateko zoritxarra izan zutelako» azaldu digu Fernando Mikelarena historialariak. San Migel zubiko gudaz ari da solasean, baina baita ondorengo urteetaz ere. Bertakoen tzako zoritxarra ez zelako amaitu irailaren 1ean zubi gainean azken tiro hotsa entzun zenean. San Migel zubiko batailaren ondotik, urriaren 7 eta 9 artean etorri zen Berako Bigarren Gudua, Manttale, Laruntiki eta

Larun mendietan. Dena den guda horiek baino kalte handiagoak utzi zituen atzean azarora bitarte iraun zuen tropa ingeles, portugaldar eta espainiarren egonaldiak.

HILDAKO ZIBILAK

XVIII. mende amaieran Bortziriak 7.000 biztanle inguruz osatutako

ONDORIOAK

«Gosea eta armadak konfiskatutako uzten ondorioz, biztanleriaren %8 inguru hil zen»

Fernando MIKELARENA
Historialaria



UTZITAKO ARGAZKA
San Migel Zubia Lagunek egindako txukuntze lanen ondotik itxura hau du zubiak.

eskualdea zen. Lesaka eta Berak, 2.000 biztanle inguruko populazioa zuten, Etxalarrek 1.400, Arantzak 1.000 eta Igantzik 600 inguru. Nekazaritza eta abeltzantzatik bizi zen gehiengoa eta soldaduen aldeak beraien egunerokoa hankaz gora jarri zuen.

Wellington jeneralak zuzentzen zituen tropek elikagai ia guztiak berretzat hartu zituzten. Merkatua bertan beherra geratu zen eta herritarrek arto ekoizpen osoa eta gari gehiena galdu zuten. Bazka gabekiak, ganadu galera handiak ere eragin zituen. Horren ondorioz,

1813ko abuztutik 1814ko urtarrilera arte 550 hildako izan ziren (biztanleriaren %8a).

LURREN BANAKETA

Tropa frantsesen zer-

gak, miaketak... jasan izan zituzten eta Udalek ere egoera ekonomikoari buelta emateko zuzeneko eta zeharkako zergak igo eta herri lurak saldu zituzten.

200. URTEURRENEKO EKITALDIA

ABUZTUAK 31, larunbata

21:00 Herritarrek osatutako ikuskizuna, Herriko Etxeko plazan. Aktoreak, musikariak, dantzariak, bertsolariak... parte hartuko dute.

Duela 200 urteko bizimodua eta gizarte zibilean gerrak utzitako ondorioak izango dira ikusgai.

IRAILAK 1, igandea

12:00 San Migel zubi berriaren inaugurazioa. Lesaka eta Berako musikari eta dantzariak emanaldia eskainiko dute.

Lurrik baliotsuenak merkatarik eta industria arloko pertsonak erosi zituzten. Klase ertainekoek berriz, bordak, gaitainondoak eta lurrak erosi zituzten luberritzeko. Lurren %4,2a eskuratu zuten 300 erreal baino gutxiagoko errenta zutenek (populazioaren erdiak).

TESTIGANTZAK

Garai hartako testuak bizi zen egoera larraren ispilu zirela azaldu digu Mikelarenak «Larpen epaileak ekainaren 18an idatzitako testu batean aipatzen zuen frantziarrek Lesaka hustu zutela. Ez zutela ogirik, lasto apur bat soilik eta zazpi egun zermatzatela zaldientzat pentsurik gabe eta bellarra ere eskas zutela».

«Bera suntsituta dagoen herrixka handi bat da. Lesaka ere ez da toki osasuntsua, ikuilu zahar baten parekoa da eta herritar aunitz hiltzen dira bertan».

Larpen 1813ko urriaren 9

Cooke ezizenez sinatzen duen beste soldadu batek honela deskribatzen zuen egoera:

«Inguruko artasoro guztiak ipurditik atera dituzte eta eraman. Horren ondorioz, nekazarietako asko ezer gabe geratu dira eta elikagai gutxi batzuekin biziraun beharko dute».

Bazterretan pilatzen joan ziren hilotzen inguruan ere bada aipamenik, Larpenek abuztuaren 14an idatzitako testu batean aipatzen du «orain dela hilabete bat Bera herri tiki polit bat zen (...). Eskualdeko arto berde gehiena atera dugu geure zaldientzat (...). Ez da bazka idorrik izanen azientzat udazkenean, ezta neguan ere. Lasto zerbait bazen, baina hori ere jana dago, eta gari nahiz arto gehiena desegin dute edo hartua dago (...). Beldur naiz herriarrek ez ote duten gosea pasatu beharko neguan, bertez lurralde batzuetara emigratzen ez badute, hori egin beharko baitute askok, eta hemen gelditzen bagara nonbaitetik ekarri beharko digute jana».

«Orain ari gara ibar hauetan geronek eginaren ondorioak sumatzen: ezin da luze ibili zaldi, mando eta gizon hilen usaina aditu gabe».

gara ibar hauetan geronek eginaren ondorioak sumatzen: ezin da luze ibili zaldi, mando eta gizon hilen usaina aditu gabe».

LANEN FRUITUAK

«Hagitz gustora gaude zubian egindako lanarekin emaitzak begi bistakoak direlako»

Iñaki OIARZABAL

San Migel Zubiaren Lagunak

IRAILAREN 1EAN

«Zubi gainean gatazka armatu bat irudikatu beharrean, armak musika eta dantzarekin ordeztatu ditugu»

Ixa ORDOÑEZ

San Migel Zubiaren Lagunak



San Migel Zubiko Lagunak burubelarri aritu dira zubia berritzeko lanetan.

EGOERARI BUELTA

Demografia aldetik «susperraldia nahiko azkarra» izan zela erran digu Fernando Mikelarenak. Ekonomia aldetik ordea korapilatsua izan omen zen berreskurapena, udaletxeek zorrak kitzatzeko zailtasunak izaten segi zutelako. Eraikinetako asko guztiz suntsitu zituzten, berteak erre eta herritarretako aunitzek hutsetik hasi beharra izan zuten. Hutsetik, hutsa nagusitzen zen inguruan.

OROIMEN HISTORIKOA

Historia kontatzerako orduan ikuspegi militar batetik jaso izan dituzte gertatutakoak. Militarren izen abizen, boteta eta armen inguruko xehetasunak nagusitzen dira. Tropa ingeles eta frantsesen arteko gudalekua izan zela irakurri dugu liburuetan, ikusi filmetan baina inguruan utzi zuen arrastoaz ahaztu izan dira. Marisol Tabernak, Berako alkateak ere hala aipatzen zuen «San Migel Zubiaren inguruan

EMAITZAK

«San Migel Zubiko Lagunak taldekoek egindako lanak herriaren historian zegoen hutsune bat betetzeko balio izan du»

Marisol TABERNA

Berako Alkatea



ZUBI BERRITUA

«Zubia xehatua zegoen eta ikaragarria izan da herritar boluntario hauek egindako lana»

Marisol TABERNA
Berako Alkatea

laguntzarik izan proiektua aurrera eramateko. «Gure bizkarreko minekin ari gara ordaintzen egindako lanak» aitortu digu Iñaki Oiarzabalek baina «ahaleginak merezi du». Berako udalak materiala eman diete eta Lesakako Udalak berriz, komentu inguruko harriak.

URTEAN ZEHAR EKIMENAK

Ixa Ordoñezek azaldu digu, 1813ko gertakarien inguruan informazioa zabaltzeko beharra ikusizutela «ezjakintasuna handia zenez, informazio bilketa bat egin behar izan genuen». Hitzaldi saioak ere izan dira, herritar orori zabalduak eta harrera bikaina izan dutela diote. Ikastetxeekin ere lan-keta bat egin eta zubiaren inguruko solasaldiak egin dituzte eta lehen hezkuntzako ikasle guztien artean, zubi sinboliko bat marraztu dute. Dena den, abuztuaren 31 eta irailaren 1ean izanen dira urteurreneko ekimen nagusiak, Iñaki Oiarzabalek osatutako gidoa taularatuko dute. «Gogotsu» daude parte hartzaileak, eta ez dira gutxi, «adin guztietako musikari, dantzari, aktoreak... izanen dira taula eta zubi gainean». Guztiek bat eginda, «gaur egungo herritarrek duela 200 urteko herritarrei eginen diegun omenaldi polita izatea nahiko genuke».

dimentsioa handia izan zen eta baita ondorioak ere. Herri osoa egon zen gainezka eginda». Hutsune hori betetzeko asmoz sortu zen duela bi urte San Migel Zubiko Lagunak taldea.

SAN MIGEL ZUBIKO LAGUNAK

2011ko irailean elkartu zen lehenengoz herritar talde bat, urteurrena zela eta zerbait egin behar zela pentsatuta. Ixa Ordoñez eta Iñaki Oiarzabal taldekideek azaldu digutenez lehenengo bileretan argi ikusi zuten zein zen eman beharreko lehenengo pausoa «zubia egoera tamalgarrian zegoen, erdi erorian eta konpondu beharra zegoen». Hortik aitzinera, astean bitan, astearte eta ostegunean, egin dute hitzordua zubian, auzolanean berritze lanetan aritzeko. Hainbat lanbidetako pertsonak, erretiroa hartutakoak gehienak, elkartu dira. Norbere abilezia eta ilusioa izan dituzte lehengai nagusiak, ez baitute diru-

BERRITZE LANEN EMATZAIK



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Goian San Migel Zubiko Lagunak berritze lanetan. Beheko irudietan zubiaren itxura ikusi liteke txukuntze lanak egin aitzinetik (ezkerrean) eta ondotik (eskuinean).

SAN MIGEL ZUBIA 1813-2013 LIBURUXKA

Orduko lekukotzak, testuak eta irudiak bildu dituzte

San Migel Zubiko Lagunek, urteurrenaren harira, *San Migel Zubia 1813-2013* liburuxka argitaratu dute. Zuri beltzeko argazki, grabatu, postalak eta lehenengo pertsonen kontatutako lekukotzekin osatu dute. «Gerrek zeharka populazio zibilaren gainean nolako eragina duten erakutsi eta ohararazteko» balio dezakeela uste dute eta bide batez, «dokumentu guzti hauek etorkizunerako altxatzeko». Salgai jarriko dituzte liburuxkak eskuratu nahi duen ororentzat. Liburuz gain, erakusketa bat ere jarriko dute martxan abuztu erdialdean. Eta taldeak lanean segiko du etorkizunean ere, San Migel zubiko harri bakoitzaren azpian, gordetzen den historia zatia denborak ezabatu ez dezan.





Nire txanda
Ruben GARATE

Hondartzako egunak

Marx anaien pelikulen izenburuek *Arratsalde bat zirkoan* edo *Egun bat karreretan* zioten eta honi *Arratsaldea hondartzan* deituko diogu. Hondartzara joateko bi modu daude, ez dugu erranen bat txarra eta bertzea ona direnik, ezberdinak baizik. Bata, idilikoa, norbera bakarrik, bere toaila, bere liburua, bere MP3a eramanez, mundutik eta bizitzatik deskonektatuz, itsas-bazterrean pasiatuz eguzkipean, itsas brisaz gozatzuz, denbora pasatzen dela ere konturatu gabe. Eta bertze bertsioa, ezberdina: hurrekin joatea hondartzara. Hor hasten da odisea, Marx anaien pelikulen antza har dezakeena: poltsak, izozkailu txikia, aulkiak, sonbrillak, kuboak, palak eta gainerako armategi puzgarria. Azkenean, nonbait txokoa topatu, alde guzietatik arropa hedatu eta kremen txanda dator, erritual hori akitzerakoan bazkaria edo berendua dator. Buff. Azkenean hondarean errebozatutako janaria izan ohi da, are ale gogorrek mastikatuz, baina beno. Ez balitz unetxo horiengatik eta bertze batzuegatik, zeri buruz solastatuko genuen? Uda zorientzua izan eta hondartzataz gozatu, umeekin edo ume gabe.

Ezpala
Aitor AROTZENA

Oporrak bakean

Ez daukaguna nahi izaten dugu. Esamolde hori inoiz baino gehiago betetzen da oporretan. Hirian bizi direnak herrira bueltatzen dira. Familiarekin bizi direnak bakarrik eta urrun igaro nahi izaten dituzte, bakarrik daudenak familiarekin, barnealdekoak kostaldean, kostakoak mendian... Saharako basamortuko bero sargoritik ihesi gurean dira neska-mutikoak frexkura eta bake bila. Han edo hemen, ongi pasa!

Nabarmentzekoak



Antonio VALDERRABANO
San Migel zubiaz solasean

San Migel Zubiko gudaren bigarren mendeurrenaren inguruko opakizunak abuztuaren 31 eta irailaren 1ean eginen badira ere, hilaren 16an zubiaren historiari solasaldia eskainiko du.



Mikel NIEVE
Hamabigarren Tourrean

Bere lehen partehartzean, Frantziako Tour bikaina egin du txirindulari leitzarrak. Azken etapa arte mendiko sailkapena borrokatu zuen eta 12. izan zen azkenean, euskaldunik onena.



Iñaki LIZASO
Azken agurra Galarretan

Oraingoan bai. San Fermín egunean Nafarroako zaleei adio erran ondokik, Doneztebeko erremonterari handiak bere azkeneko partida jokatuko du abuztuaren 10ean Galarretan.

Atzera begira → 2003.08.14 / LURRA 30. zbk.



Amaiurko Komainekomendiko Bordako behokaren istorioa

Kontu berexi batekin ageri zitzaigun duela hamar urteko Lurra aldzakaria, hain zuzen umezurtz gelditu eta behi bat amatzat hartu zuen behokarena. Luis Jimenez eta Maria Angeles Mugikak ziotenez, «segiduan saiatu ginen tututik edanazten baina ez zuen nahi. Gero belar jaten hasi zen eta horrekin batera behientzako ontzitik ura ere bai. Guk hori ikustean pentsatu genuen agian ontzi horretan esnea paratuz, edan eginen zuela. Halaxe egin genuen eta esnea edaten hasi zen. Behin hortara egin zenean, behien ondora gaten hasi zen eta bi egunen buruan behiari tititik esnea edaten hasi zitzaion».



Ergitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraalde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidente Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	17€



Eusko Jaurritzakako Kultura Sailak diruz lagundutako aldzakaria



Bortziritako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

ZUBIETAKO FIESTAK 2013

ttipi-ttapa | 596 zbk
2013.08.08

7

Abuztuak 14, asteazkena BEZPERA

20:00 txistulariak. Ondotik trikitilariak. 21:30 zopa handiak Herriko Ostatuan eta Errandonean. 00:00 arbola altxatzea eta joaldunak. Ondotik dantzaldia AIERRIK taldearekin.



Abuztuak 15, ortzeguna AMA BIRJIN EGUNA

08:00 goizeko soinuak. Egunean zehar haurrentzako puzgarriak. 11:00 meza nagusia. Ondotik txistulariak eta joaldunak. 12:30 aizkora apostua: Eratsun – Loiarde / Larretxea - Saralegi. 18:00 Ibintza taldeko dantzariak. Arratsaldez-gauetz dantzaldia MADARIAGA akordeolariarekin.



Abuztuak 16, ortzirala

08:00 goizeko soinuak. Egunean zehar haurrentzako puzgarriak. 10:00 hurren pilota partidak. 12:00 futbitoak (helduak). 16:00 mus txapelketa. 17:00 patata tortilla lehiaketa. Ondotik berendua. 19:00 muxikoak. Arratsaldez-gauetz dantzaldia OIHANA eta OIHANA trikitilariarekin.

Abuztuak 17, larunbata HAURREN EGUNA

08:00 goizeko soinuak. Egunean zehar haurrentzako puzgarriak. 10:00 haurrentzako betiko jokoak. 10:30 moto klasikoaren kontzentrazioa. Eguerdin haurrentzako bazkaria. 16:30 Kulki. 17:00 plater tiroketa herritarrentzat. Arratsaldez-gauetz dantzaldia ZESUMA taldearekin.

Abuztuak 18, igandea HERRIAREN EGUNA

08:00 goizeko soinuak. Egunean zehar haurrentzako puzgarriak. 11:00 gazteentzako jokoak. 12:30 bertso pilota. 13:30 bertsolariak plazan: Peñagarikano – Jon Maia. 14:30 bertso bazkaria: Peñagarikano – Jon Maia 17:00 haurrentzako futbitoak. Arratsaldez-gauetz dantzaldia Astiazaran Anaiak taldearekin. 02:30 arbola botatzea beste bukaera emanez.

ARRATE ESTETIKA ZENTROA

DEHONTZAKO ESTETIKA PROFESIONALA
 ALUPEDIRAKO GARBIKETA 45€
 MANIKIJARA IRAUNKORRA 30€
 BETILEETAKO PERMANENTEAK 30€
 BEKAINAK ETA BIBOTEA HARIAREKIN 10€
ESKATU PREZIOEN ZERRENTA
berta egiten dugu!

Parrokiak. 18 | DONEZTEBE (Nafarroa) | 948 450 288

ERRANDONEA OSTATU

BESTETAN GIRO PAREGABEA

948 450 216 - ZUBIETA

MADERAS SANTESTEBAN

Mendiaren munduan
 Ritak - Mendiaren ibilak
 Taldeentzako egiturak
 Ezinbestekoak diren
 Oso partak - Aholkari-zerbitzuak

www.maderas-sansteban.com
 Arratez, parrokiak | ZUBIETA | 948 450 217
 info@www.maderas-sansteban.com

ZUBIETAKO UDALA (NAFARROA)

Zubietako Udalak
 besta zoriontsuak
 opa dizkizue
 zubietar eta
 bisitari guztiei

www.pala.pala.com



aterpe

T. 948 634 179 | ARANTZA | www.aterpea.net

IMANOL ITURRIA
ZURGINA

Experto en fontanería

T. 948 971 117
Egona: iturria@imanol.com

Exclusivo mantenimiento preventivo y correctivo




PABLOENEA

KARTEA | ENFURKA | PLATERA | BOBINATUTAN
BOLADULTAN | HUMBURDIAK | ESTRENO MOTELAK

www.pabloenea.com

Goiko kalea, 5 • ARANTZA • 948 634 077



PRIMI
ostatua

Tel. 948 634 051 • ARANTZA



Patei Iturria
TAXIA - 3 PLAZA

948 634 922
948 634 859

Experto en CB - Internet
LINGI PASA BENTAK



BURLADA
lategia

- Platero berberak
- Opatu berberak
- Erreze berberak
- Karta

T. 948 634 027 • ARANTZA



GOIENBURU

Iturgintza, Alerak eta eta gaur
eguzki plaka eta biomasa
eguzki baterak eta berotasun
goienburu@gmail.com

Goienburu, 10 - 31790 ARANTZA - 600 902 723



Zurgin lanak
orokorrean

Amarua
Leihok
Atari
Telatu berak
Parke flufantea
Tartina
Telatu zaharberitzeak
onk-pasa
bestak

Luis Ibarra

636 701 204

690 388 263

Salbarozte karrua, 28 • ARANTZA




Itziar MITXELENA eta Aintzane PIKABEA | Gazte Asanbladako kideak

«Jendea bildu eta lana antolatuz gero, aisa ateratzen da aitzinera Arantza Rock»



UTZITAKO ARGAZKIA

Itziar Mitxelena eta Aintzane Pikabea, Arantzako Gazte Asanbladako kideak.

Abuztuaren 24an eginen den Arantza Rock jaialdia hemezortzigarrena izanen da, eta hori prestatzen burubelarrri dabilza Arantzako Gazte Asanbladako lagunak. Tartean daude Itziar Mitxelena eta Aintzane Pikabea. Maiatzean hasi ziren aurtengo jaialdia prestatzen, kontaktu digutenez, «taldeak erabakitze».

Baina horrez gain, «ekipoa lortu, baimenak eskatu, ostalduerari laguntza eskatu, publikitatea eta rifak egin»... Horretan ere ibili dira. Ez dela lan handia aitoritu dute, eguna bera omen da lan gehien ematen duena: «eszenatokia muntatu, argiak, txosna, taldeei harrera egin, dekorazioa... Egun guztian zeregina izaten da, baina jendea bilduz gero eta antolatuz gero, aisa egiten da», azpimarratu dute.

1995ean egin zen lehenbiziko Arantza Rock. Aterpeko lagunek musika talde batzuekin zuten harremanak lagundu zuen jaialdia aitzinera eramaten. Hurrengo bi urteetan Aterpen egin zen, baina geroztik 2006ra arte frontoian. Urteetik urtera arrakasta handia lortzen joan zen eta urte-rik jendetsuenean 3.000 lagunetik goiti ere bildu ziren Arantzán. Bi gazteek aipatu digutenez, «garai hartan gazte gehiago aritzen ziren lanean, inplikazioa haundiagoa zen, kontzertuek jende gehiago mugitzen zuten...». Urteekin, ordea, gauzak aldatuz joan ziren. Mitxelena eta Pikabearen irudiko, hasierako urte arrakastatsuenen ondotik, «Arantza Rock indarra galtzen joan zen, kontzertu apalagoak egin ziren, jende gutti ibili zen antolaketan, motibazio txikia...». Dena den, bi gazteen ustez, «azken lauzpabertz urteetan berriz indarra hartu du». Gaur egun, formatu desberdinean egiten da Arantza Rock: «plazan egiten da, giro beroagoa eta herrikoiagoa sortzen da, sarrera dekalde da, talde ezagunak ekartzen dira, eta rock-az gain, musika estilo desberdinak aditzeko aukera izaten da jende mota desberdinarentzat». Urte apalagoak bizitu diren arren, «Arantza Rockek izena mantendu du».

Kaskezur, Gibelurdinek, Kop, Xutik eta DJ Elepunto izanen dira aurtengo talde gonbidatuak. Horretarako sei mila euro inguruko aurrekontua dute Gazte Asanbladakoek, «azken urteetan sei hamar mila euro ingurukoa izan da», gaineratu digute. Eta guztia aitzinera ateratzeko herriko bestetan plazan paratzen duten txosna izaten dute diru iturri nagusia: «orain arte kamisetak ere egiten genituen; baina gaur egun kamisetak saltzea zaila da eta azken urteotan ez dira egin. Joan den urtean, berrikuntza gisa, zozketa egin genuen eta aurten ere rifak atera ditugu». Gazte Asanbladako kideek dituzte saltzeko, euro batean.

Egunari begira, herritarrei parte hartzeko deia luzatu diete Mitxelenak eta Pikabeak: «antolakuntzan parte hartzeko, denon artean gauza politak ateratzen ahal dira. Eta bertzelan ere, egunean bertan, giroaz gozatzera etortzeko». Herriko gazteei, berriz, honako mezua: «etorki-zuna gure esku egoten ahal da, eta mugitu! Guk dugu gauzak aldatzeko indarra eta herri bati bizitasuna emateko aukera». Azkenik, herritik kanpokoei Arantza Rockera joateko gonbitea egin diete: «eskualdeko eta inguruko jendearentzat harremanak sendotzeko, elkar ezagutzeko eta musika eta giro herrikoi batez gozatzeko aukera polita da». Gonbidapena, beraz, egina dago, Gazte Asanbladako izenean Aintzane eta Itziarrek zuzenean egin. Gonbidapena onartzen duenak herriko bestetan nahiz Arantza Rocken aurkituko ditu bi gazteak, han eta hemen eskua botaz, biak ere ez baitira geldirik egotekoak.



Abuztuak 14, asteazkena

12:00 Altzaferua Herriko Etxetik. Ondotik kalejira. 12:30 Herriko dantzarien emanaldia. 18:00 Haurrentzako tailerrak. 18:30 Herri kirolak frontoian. 20:30 Gurpildun zezena. 21:00 Dantzaldia JALISKO taldearekin. 00:00-04:00 Dantzaldia JALISKO taldearekin. **Atsedendian** bingoa.



Abuztuak 15, ortzeguna AMA BIRJIN EGUNA

10:00 Argisoinuak herriko musikariekin. 11:00 Meza Nagusia eta prozesioa. 12:30 Herriko dantzariak zortzikoa dantzatuko dute. 19:00 Profesionalen pilota partidak frontoian. 20:00 Dantzaldia AI ENE taldearekin. 21:30 Suzko zezena. 00:00-04:00 Dantzaldia AI ENE taldearekin. **Atsedendian** irrirtzi txapelketa.



Abuztuak 16, ortzirala HAURREN EGUNA

10:00 Argisoinuak herriko musikariekin. 11:30 Entzierro ttikia eta buru-haundiak. Ondotik luntxa. 16:00 Haurrentzako puzgarriak frontoian. 17:00 Plater tiroketa Usua Ehizari Elkartearen eskutik. 19:00 Bertso saioa. 21:00 Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. 21:30 Suzko zezena. 22:00 Auzoko afariak. 00:00-04:00 Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.



Abuztuak 17, larunbata

10:00 Argisoinuak herriko musikariekin. 11:00 Herriko pilota txapelketako finalak, Ekaitza Elkartek antolatua. 13:00 Kantu poteoa. 14:00 Herri bazkaria. Ondotik poteoa eta kalejira txarangarekin. 20:00 Dantzaldia plazan OBANEUKE taldearekin. 20:30 Bokadilo jatea plazan. 00:00-04:00 Dantzaldia plazan OBANEUKE taldearekin.

Abuztuak 24, larunbata ARANTZA ROCK

Ilunabarrean Poteo musikatua kostaldeko nafarrekin. 22:30 Kontzertuak plazan: Kaskezur, Gibelurdinek, Kop, Xutik eta DJ Elepunto.





ETXALARKO

BESTAK 2013




Abuztuak 14, asteazkena

19:45 Agerraldi ixila 'Euskal Presoak Euskal Herrirat'. **20:00** Altxaferua, txistulariak, trikitilariak, txaranga EGHOAK, buruhaundiak eta kankailuak. Txanpaina, goxoki eta globoak banatuko dira. **21:30** Afaria frontonean. Txartelak hartzeko epea abuztuaren 11n akautuko da. Txartelak 20€ balioko du. Epez kanpo erosten duenak 5€ gehiago ordaindu beharko ditu. **23:30-03:30** Dantzaldia GAUENARA taldearekin.

Abuztuak 15, ortzeguna

ANDREMARI EGUNA

10:30 Argisoinuak musikari, buruhaundi eta kankailuekin. **11:30** Meza nagusia. Andremari eguna. **12:30** Herriko dantzarien saioa txistulari eta musikariek. **Ondotik** Eskola Zaharreko atean hamaiketako dantzari eta musikarientzat. **18:00** Aizkora apostua: Larretxea aita-emeak, Etxeberria-Erasun. Txinga-eramailea; emakumezkoetan Euskadi eta Nafarroako txapelduna. **19:00** Harrija-sotzaileak. Unai Bertiz eta 'Santxin'. **20:00-22:00 / 00:00-04:00** Dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.



Abuztuak 16, ortziral

HAURREN EGUNA

10:00 Argisoinuak herriko trikitilarien eskutik, buruhaundi eta kankailuekin. **11:00-13:30 / 15:00-17:30** Haurrendako joku parkea eta tren txutxua. **13:30** Asau ttiki. Txartelak 9€ balioko du. Txartelak hartzeko epea abuztuaren 11n bukatuko da. Epez kanpo erosten duenak 5€ gehiago ordaindu beharko ditu. Bertze urtetan bezala, berendua prezioan sartua dago. Guraso Elkarteak antolatua. **18:00** Herriko gazteen herri kirol desafioa. Aurten ere herriko bi talde lehiatuko dira. **19:30-21:30** SALTOKA taldearen animazioa. Zahar eta gazte, denak dantzara!! **00:00-03:00** Dantzaldia GOZO-GOZO taldearekin.



Abuztuak 17, larunbata

10:30 Argisoinuak herriko txistularien eskutik, buruhaundi eta kankailuekin.
11:00 Etxalarko haurren XXVII. esku pilota txapelketaren finala. Aurre benjaminak, benjaminak, alebinak eta kadeteak. 12:00 Etxalarko Gazteen arteko II. esku pilota txapelketaren finala. 13:00 Sari banaketak pilota partida guztienak. 17:30 XXI. Mus Txapelketa. Partidak bi txikotara jokatuko dira. Parte hartu nahi dutenek, 17:00ak baino lehen eman beharko dute izena plazan. Antolatzaillea: Garbiñe Maia. 18:30 Herriko trikitilarien saioa. Ondotik berendua eskainiko zaie 19:15 Mus txapelketako sari banaketa 19:30-21:30 TXU-TXIN IBAÑEZekin Mariatxiak. 00:00-04:00 Dantzaldia DANTZADI taldearekin.



Abuztuak 18, igandea ASAU ETA JUBILATUEN EGUNA

10:30 Argisoinuak herriko txistularien eskutik, buruhaundi eta kankailuekin.
12:30 Bertso saioa meza ondotik: EGAÑA eta LIZASO. 14:00 Jubilatuen bazkaria.
14:00 Asau ermitako zelaian. 20:00-22:00 / 00:00-03:00 Dantzaldia MODES-TOrekin.



ELUTSA
• S • U • A • U • A

TABAKOAK

**BESTA ONAK
PASA ITZAZUE!**

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

Gora herriko bestak

Figueras lokale: 06:30 - 18:00
Tel: 801 76 70 27

ba

948 631 218

Kantianberrí 1, BERA

BUZKILETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE

haritzpe

ONGI PASA BESTAKI
Goikolanda, 8
31760 ETXALAR
T. 618 778 328

SASOI
eraikuntzak s.l.
Leku-erria: 31101 BILBUENA
T: 948 211 226 F: 948 900 116
www.sasoi.es
ONGI PASA BESTAK

DOMENBER-GAZTELUNO UDELEN



Besta zoriotsuak
opa dizkizue
herriar eta bisitari guztiei

Mutuberria Alimentación S.L.

Aliprox





T: 948 456 152
Zaragozako: 6
31740 DONEZTEHE
mutuberria_alimentacion@hotmail.com
ongi pasa bestak!

DONAMARIAKO

BESTAK 2013



Abuztuak 14, asteazkena

20:00 Txupinazioa. 20:10 Kalejira trikitilari eta buruhandiekin. 00:00 Musika DJ Julenen eskutik.




Abuztuak 15, ortzeguna

AMA BIRJIN EGUNA

09:00 argi soinuak auzoz-auzo. 11:00 Meza Nagusia. 12:00 Herriko gaztetxo-en dantzaldia (meza ondotik). 12:30 Luntxa Herriko Ostatuan. 19:00 Kantaldia. 20:00 Dantzaldia MENDIBERRIrekin. 20:30 Magraren pisua asmatzea eta txapel tiraketa lehiaketa. 00:00 Dantzaldia MENDIBERRIrekin.

Abuztuak 16, ortzirala

13:00 Aizkora apostua: Donato Larretxea-Oihan Larretxea | Floren Nazabal-Ander Erasun. 14:00 Paellada herrikoia. 18:00 Pilota: raketa txapelketako finala. 20:00 Dantzaldia GABEZIN taldearekin. 22:00 Gazte afaria. Ondoren 'Batabatean' bertso saio musikatua. 00:30 Dantzaldia GABEZIN taldearekin.



Abuztuak 17, larunbata

11:00 Puzgarriak eta jolas-parkea haur eta umeentzat. 16:00 Puzgarriak eta jolas-parkea haur eta umeentzat. 17:00 Mus *tximista* txapelketa. 18:00 Txokolatada. 19:00 Patata-tortila eta postre lehiaketa. 22:00 Kantu zahar afari herrikoia, BIXENTE akordeoilariarekin.

Abuztuak 18, igandea

09:00 argi soinuak auzoz-auzo. 14:30 Herri bazkaria. Bertsolariak: Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze. 20:00 Dantzaldia Trikidantz taldearekin. 22:00 Herri afaria. 00:00 Dantzaldia Trikidantz taldearekin.





ORNOZ MUGAIRIKO BESTAK 2013

Abuztuak 14, asteazkena HAURREN EGUNA

10:00 Herri krosa. 12:00 Txupinazoa. Ondotik Kalejira herrian barna herriko gaztetxoek animaturik. 14:00 Haurren bazkaria. 16:30 Hour eta gaztetxoendako ginkana eta probak. 17:00 Mus zimizta txapelketa Ongi Etorri ostatuan. 21:00 Baztan Zopak. 00:30 Dantzaldia FRANTXISKOREKIN. 06:00 Xingar jatea.

Abuztuak 15, ortzeguna AMA BIRJIN EGUNA

11:00 Meza Nagusia. 12:00 Herriko haurren dantza saioa. Ondotik Luntxa. 17:30 Pala txapelketako finalak. 19:00 Trikitixa erakustaldia. 19:30 Kantaldia Leire Onsalorekin. 20:30 Dantzaldia JOXEANJELEKIN. 21:00 Koadrilen afaria. 23:00 Dantzaldia JOXEANJELEKIN.



Abuztuak 16, ortzirala GAZTE EGUNA

10:30 Dianak. 12:00 Partxis txapelketa. 14:30 Gazteen bazkaria Azkazkorron. Ondotik Kalejira txarangak alaiturik. 20:30 Dantzaldia eta gazte mozorro besta Jaione Elizagoienekin. 21:30 Tortilla txapelketa. 23:30 Rock kontzertuak.



Abuztuak 17, larunbata HERRIKO EGUNA

10:00 Kantatutako dianak. 14:00 Herri bazkaria. 17:00 Dantzaldia JOXEANJELEKIN. 20:00 Herri kirolak. 21:30 Txorizo eta patata tortilla dastaketa. 00:00 Gaixoa ni. Ondotik DJ PALI.



Abuztuak 18, igandea RESAKA EGUNA

21:00 Auzo afariak.



Oxeguarda
ostalua

Ongi pasatzen festak!

T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA

XIMON
horategia

948 514 056
GOIZUETA

OHKI ICARO FESTAK!

ZABALA eta GOIKOETXEA
ERABUNTZAK

Gure Amisak GOIZUETA

Tf: 948 51 42 28 M. 679 47 98 93 • 679 47 98 78

ZABALETA taberna

Nagusia, 42 • 948 514 083 • GOIZUETA

Goizuetan
Izkiña jatetxea

Etan pasatzen festak!

Amaburu jin zoriontsuak!

948 51 41 02



Goizuetako Udalak
festa onak
opa dizkizue
goizuetar eta
bisitari guztiei



Abuztuak 11, igandea HAUREN EGUNA

08:00 Aurorak. 09:30 argi soinuak, IRUMAITA umeen txarangarekin. 11:00 Meza haurrak bertako jantzikin. 12:30 Gaztetxoeren pilota partidak. 14:00 Haurrentzako bazkaria ikastolan. 17:00 Zezenak eta ponyak LASTUR. 18:00 Haurrentzako berendua. 18:30 Espuma festa (ELURRI txaboia). Ondoren Dantzaldia AIERRI taldearekin.



Abuztuak 14, asteazkena GAZTE EGUNA

11:30 Ikurriñari omenaldia. 12:00 Txupinazoa segidan, Trikitilariak, Erraldoiak eta Buruhaundiak Brindisa HERRIRA txoznan. 13:00 Gazte bazkarikoen poteoa. 14:30 Gazte bazkaria. 18:00 Karrozaespres abiera. 19:30 UMORE-ONA peñan irteera. 20:00 Gazteen txupinazoa eta txarangarakin kalejira. 00:00 Dantzaldia GABEZIN taldearekin. 00:00 Gaztetxen DJ OATTOLO. Ondotik Txaranga.

Abuztuak 15, ortzeguna AMA BIRJIN EGUNA

07:00 Argi soinuak dultzaineroekin. 08:00 Entzierroa LASTUR. 10:30 Meza nagusia. 12:30 Pilota partidak: bat gaztetxoeren artean eta bestea Lujanbio-Etxegoien/Urkizu-Alberdi. 12:30 Erraldoiak eta baruhaundik. 18:00 Zezenak LASTUR. 19:30 Bertso saioa, gai librean: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Xabier Silveira. 22:00 Afaria herrikoia Umore-ona Elkarten. 22:00-02:00 Dantzaldia ITZARTU taldearekin. 01:00 kalejira Igandea txarangarekin.

**UMORE ONA
ELKARTEA**

Festa ederrik pasat!

 GOIZUETA





Abuztuak 16, ortzirala

11:00 Buruhaundi eta erraldoiak. 12:00 Bakailo lehiaketaren hasiera. 13:00 Lehiaketarako epai-mahaia. 13:30 Txaranga. 16:00 Mus Txapelketa ISKIBIN. 18:30 UMORE-ONA dantza taldearen emanaldia. 00:00 Dantzaldia LAIOTZ taldea. 00:00 Kontzertok Gaztetxeen: EMON eta GIBELURDIÑEK. Ondotik Txaranga.

Abuztuak 17, larunbata

SAGARDO EGUNA

11:00-14:00 Haurrentzako PUZGARRIAK eskolan. 12:00 Sagardo probaketa. 16:00-18:00 Puzgarriak. 18:00 Zezenak LASTUR. 19:30 Profesionalen pilota partidua "ASPE"ren eskutik; Apeztxea-Olaizola I / Olazabal-Peñagarikano. Afizionatuak: Errandonea-Olaizola// Mitxelena-Martinez. 00:00 Dantzaldia. LAIOTZ taldearekin. 00:00 DJ BULL Gaztetxean. Ondotik Txaranga.



Abuztuak 18, igandea

PEÑAREN EGUNA

08:00 Entzierroa LASTUR. 12:30 Peñaren irteera ikastolako tabernatik. 13:00 Pelota partiduk: Goizueta-Arano. 15:00 Umore Ona Peñaren bazkaria. 17:00 Peñan irteera. Ondotik Zezenak LASTUR. 00:00 Jaien bukaera ofiziala. Ondotik Dantzaldia GABEZIN. Ondotik Txaranga.





Kinttako

Manduli promozioak

T. 948 514 036
M. 653 709 495-96
31754 Goizueta (Nafarroa)



ZUBIONDO

TABERNA

Eguneko menu
Plater konbinatuak
Bekatak

Espiritu Santo - GOIZUETA - 662 143 066 - 658 758 882



K. NAGUSIA / GOIZUETA - 948 514 242

a

ntsa

Janaridenda 948 514 054
GOIZUETA



anak, apeztxea, eskabazioak

Kariellazioak
31754 GOIZUETA - Nafarroa
Tel: 606 30 18 77
948 62 28 20
www.kariellazioak.com
info@kariellazioak.com

ONGI PASA' ESTAKI



ZUBIMUXU ATERPEA

Herrera plaza 10 - 31754 GOIZUETA
T. 653 255 656
zubiarena@zubiarena.com
www.zubiarena.com





ARESOKO PESTAK 2013

Abuztuak 14, asteazkena PESTA BEZPERA

17:00 Haurrentzat merienda plazan. 18:00 Etxafuegoa botako da udaletxeko balkoitik festei hasiera emanez. 18:30 Haurrentzat jokuak plazan. 19:00 Frontenis txapelketako finala. 19:30 Patata-tortilla lehiaketa. 21:00 Herri afaria karpan. 23:30 XXVIII. Mus txapelketa udaletxean.

Abuztuak 15, osteguna AMA BIRJIN EGUNA

09:30 Diana 11:00 Meza nagusia izango da, bertan udal ordezkariak izango dira eta herriko haur dantzariak arkuak egingo dute. Ondotik udalak hamaiketako eskainiko du plazan. 12:30 Hurrek Aresoko ingurutxo dantzatuko dute plazan. 13:00 Pilota partida: Olano-Altuna vs Onsalo-Peñas. 18:00 Herritarren dantza saioa plazan. 19:15 Aizkolarien saioa plazan Rekondo-Zaldia vs Otaegi-Pellejero. 23:00 Aurtizko Oihana Elizalde eta Oihana Mindegia trikitilariak ariko dira plazan.



Abuztuak 16, ostirala

09:30 Diana. 11:30 Puzgarriak eta jokuak plazan. 11:00 Plater tiraketa Urteagako parajearen. 13:00 Gaztetxoaren arteko pilota partidua plazan. 17:00 Eriz Magoaren magia ikuskizuna plazan. 18:00 Umeen arteko pilota partidua Hegoi Baraibar-Aimar Otermin vs Aitor Arraras-Yulen Aranalde. 18:30 Herriko gazteen arteko herri kirol desafioa. 20:00 Aresoko antzerki taldearen ikuskizuna plazan, "Aresoko harria" antzerkia. 21:30 Guraso Elkarteak antolatutako herri afaria. 23:00 Musika plazan Gabenara taldearen eskutik.

Abuztuak 17, larunbata

09:30 Diana. 11:00 Kalejira hasiera plazatik, Jaiak Txarangaren laguntzaz. Herriko auzo desberdinetan hamaiketako jarriko dute koadrilek. 15:00 Pae-lla erraldoia karpan koadrila guztientzat. 17:30 Koadrilen arteko jolasak plazan. 19:00 Txerrikumea harrapatzea. 21:30 Bokadilo jana karpan. 23:00 Ingo al deu? Taldearen eskutik dantzaldia.

Abuztuak 18, igandea

09:30 Diana. 14:00 Herri bazkaria. Gero, Leire Onsalo gitarrarekin eta Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi bertsotan. 18:00 "Errimak oinetan" dantza emaldia. Ondoren Sari banaketak. 19:30 Sagardo dastaketa. 23:00 DJ Imanol.



Jabi BELAUNTZARAN | Aresoko antzerki taldeko kidea

«Apustu baten inguruan, garai bateko gertaera eta esaerak bildu ditugu antzezlanean»

